



EBAZPENA, 2021eko otsailaren 23ko Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, EAeko Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleen Kidegoetako eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen irakaskuntza-kidegoetako funtzionario irakasleen artean estatu mailako lekualdatze-lehiaketan onartutako eta kanpoan utzitako parte-hartzaileen behin betiko zerrenda argitara ematen duen zuzendari beraren 2021eko otsailaren 12ko ebazpenaren akatsak zuzentzen dituena.

Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2021eko otsailaren 12ko ebazpenaren bidez argitara eman zen EAeko Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleen Kidegoetako eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen irakaskuntza-kidegoetako funtzionario irakasleen artean estatu mailako lekualdatze-lehiaketan onartutako eta kanpoan utzitako parte-hartzaileen behin betiko zerrenda, Hezkuntza sailburuaren 2020ko urriaren 22ko aginduak I. eranskinean ezarritako baremoen arabera esleitutako puntuazioa adierazten zuena.

Egitezko akatsak aurkitu dira 2 parte-hartzaileen 4. ataleko baremazioan, zuzendaritza-karguak eta beste funtzio batzuk bete izanari dagozkienak; horregatik, eta urriaren 1eko 39/2015 legeak, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkidearenak, 109.2. artikuluan xedatutakoaren arabera, “*Administrazio Publikoek, halaber, izango dute edozein unetan, ofizioz edo interesatuen eskariz, beren egintzetan dauden akats materialak, izatekoak edo aritmetikoak zuzentzeko aukera*”. Horiek horrela, aipatutako legeria eta bat datorren gainontzekoa ikusita,

EBAZTEN DUT

Lehena.- 2020/2021ko lekualdatze-lehiaketan onartutako parte-hartzaileen behin betiko zerrendako 4. atalean, zuzendaritza-karguak eta beste funtzio batzuk bete izanari dagozkienak, 2 parte-hartzaileen merezimenduen puntuazioan antzemandako egitatezko akatsak zuzentzea. Irakasle horiek Bigarren Hezkuntzako katedradunen, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako, Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakasleen eta irakasle teknikoen kidegoetako irakasleak dira. Puntuazio zuzena ebazpen honen eranskinean ageri da.

Bigarrena.- Gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, ebazpen hau argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko otsailaren 23a

BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARI



ERANSKINA / ANEXO

Se corrigen los errores en las puntuaciones del apartado 4 y Total sin Euskera de los/as siguientes participantes, quedando de la siguiente forma:

Ondorengo parte-hartzaileen 4 atalaren eta guztizkoaren, euskararik gabe, puntuazioetan dauden akatsak zuzentzen dira. Horrela geratzen dira:

NAN/DNI: ***3383** DEITURAK ETA IZENA/APEL. Y NOMBRE: **LOPEZ GUTIERREZ M. ELENA** MODA./MODA.: A ESP/ESP: 008 HE/PL: PL0 LH/TH: 01

4. ZUZENDARITZA-KARGUAK ETA BESTE FUNTZIO BATZUK BETE IZANA/DESEMPEÑO DE CARGOS DIRECTIVOS Y OTRAS FUNCIONES **12,0000**
4.1 12,0000 4.2 4.3

GUZTIRA EUSKERA GABE/TOTAL SIN EUSKERA .. **220,4666**

NAN/DNI: ***4405** DEITURAK ETA IZENA/APEL. Y NOMBRE: **PEREZ RAMOS MARIA ANGELES** MODA./MODA.: A ESP/ESP: 004 HE/PL: PL1 LH/TH: 48

4. ZUZENDARITZA-KARGUAK ETA BESTE FUNTZIO BATZUK BETE IZANA/DESEMPEÑO DE CARGOS DIRECTIVOS Y OTRAS FUNCIONES **10,5000**
4.1 8,0000 4.2 2,5000 4.3

GUZTIRA EUSKERA GABE/TOTAL SIN EUSKERA .. **179,6666**